

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h** duzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 500 hitz gehienez. 	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	30 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

EL CASCO GRAPAGAILUAK

1920an suzko armak egiten zituen Orbea enpresako bi langilek, Juan Solozabalek eta Juan Olavek, El Casco enpresa sortu zuten Eibarren. Orbean ikasi zutena baliatuz, kalitate handiko errebolberrak egitea izan zen haien asmoa, eta horixe egin zuten bederatzi urtez. Baina 1929ko krisiak eragina izan zuen errebolberren merkatuan ere, eta bi armaginek ekoizpena egokitzea erabaki zuten: lehengai, makina eta langile espezializatu berberak erabiliz, bulegoko materiala egiteari ekin zioten handik aurrera.

Onddo itxurako grapagailua diseinatu zuten eta «paper-joskailua» deitu zioten. Hasieratik garbi adierazi zuten armagintzarekin zuten lotura: «bala bat errebolber baten kanoian ibiltzen den bezala ibili behar du grapa batek grapagailuan». Lehenago ere baziren grapagailuak merkatuan, esaterako, C. H. Gould-ek 1879an patentatutako kilotik gorako tramankulu astuna. Beraz, ezin da esan Olavek eta Solozabalek grapagailua asmatu zutenik; bai, ordea, eskuzko grapagailu arinak ekoizten eta hedatzen lehenak izan zirela.

Paper-zulagailuak, txorroskiloak edo gutun-pisuak ere sortu zituzten, baina grapagailua izan zen enpresaren produktu izarra, bereziki 1932an M-5 modelo ezaguna egin zutenetik. Modelo hori berehala egin zen famatua eta oraindik ekoizten da Elgetako fabrikari, eta mundu osoan saltzen da. Gainera, 90. urteko modeloa New Yorkeko MoMa museoan dago ikusgai.

El Cascoren historiak adierazten du eguneroko objektuak arte bihurtu daitezkeela. Baina, hori baino lehen, adierazten du eguneroko objektu askok industria militarrean dutela jatorria, behar militarrei lehentasuna ematen zaiela gizarte zibilaren beharren aurretik, nahiz eta gero gizarte zibilaren beharrei erantzuteko balio duten.

Eibarren asmatutako grapagailuez gain, jatorri militarreko beste asmakizun asko izan dira gure bizimodua aldatu dutenak: zinta itsasgarria, janari ontziratua, mikrouhin labea, kontaktuzko kola, konpresa menstrualak, radar meteorologikoak, Internet, kautxu sintetikoazko pneumatikoak...

IRAZUSTABARRENA, N.

Argia. 2022ko urtarrilaren 16a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer dio testuak Solozabalez eta Olavez?

- a) Orbea enpresa sortu zutela.
- b) Armen mundutik zetozela.
- c) Ez zutela armarik egin nahi.

2. Zertan eragin zien Solozabali eta Olaveri 1929ko krisiak?

- a) Fabrikatzen zuten produktua aldatu behar izan zutela.
- b) Lehengaiak eta makinak aldatu behar izan zituztela.
- c) Errebolberren merkatura egokitu behar izan zutela.

3. Zer asmatu zuten Solozabalek eta Olavek?

- a) Merkatura atera zen lehenengo grapagailua.
- b) Armekin zerikusirik ez zuen makina bat.
- c) Pisu arineko lehen «paper-joskailua».

4. Zer dio testuak El Casco enpresari buruz?

- a) Ez zituela bakarrik grapagailuak egiten.
- b) Ezaguna egin zela paper-zulagailuengatik.
- c) Hainbat produktu izar fabrikatzen zituztela.

5. Zer ondorio ateratzen du testuak jatorri militarra duten objektuez?

- a) Hasieran gizarte zibilarentzat pentsatuta egoten direla.
- b) Batzuk gure egunerokoan erabiltzen ditugula.
- c) Behar militarrei ezin zaiela lehentasunik eman.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A ZARAUZKO UDAL BARATZEAK

Zarauzko Udalak 170 baratze jarri ditu herritarren eskura; Euskal Autonomia Erkidego osoan baratze gehien dituen udalerrria da. Oraindik badaude batzuk eskuragarri. Interesa duenak kontzesioa berehala izango du, uda honetako uzta prestatu eta aprobetxatu ahal izateko.

Interesatuak Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZen) eman behar dute izena, Kale Nagusiko 29. zenbakian, behean; edozein zalantza argitzeko 943 00 51 00 telefono zenbakira dei daiteke. Baratze bat lortzeko ezinbestekoa izango da Zarautzen erroldatuta egotea; eta, lortu ondoren, udal-ordenantza bete beharko da, behar bezala erabili eta funtzionatzeko.

Zarauzko Hitza.

2020ko maiatzaren 22a. Egokitua

B LAUDIOKO UDAL BARATZEAK

2013an Laudioko Udalak 63 baratze jarri zituen martxan erabiltzen ez zen futbol-zelai batean. Baratzeak partzelatan daude banatuta (gutxi gorabehera 75 m²) eta bakoitzak ur-hornidura eta energia elektrikoa ditu.

Espazio bat ere erreserbatu da guztion artean konposta ekoizteko; eta, horrez gain, lanabesak gordetzeko bi etxola itxi daude.

Urte osoan eska daitezke baratzeak. Hiru hilean behin aztertzen dira eskaera berriak eta bajak. Zerbitzu horiez gozatzeko erabiltzaile guztiek 21,00 € ordaindu behar dituzte hiru hilabetean behin, kolektibo batzuek (langabetuak, ezgaituak,...) izan ezik.

<www.laudio.eus> Egokitua

C GERNIKA-LUMOKO UDAL BARATZEAK

2016an Gernika-Lumoko Udalak «Piperra eta Gatza» proiektua abiarazi zuen, eta, horren bidez, nekazaritza ekologikoa bultzatzeko hiri-baratzeak prestatu ziren; gaur egun 63 bizilagun ari dira erabiltzen erreka inguruan dauden 130 partzeletako bat.

Baratze horiek udalerriko irabazi-asmorik gabeko pertsona eta erakundeei daude zuzenduta. Gainera, autokontsumorako baino ez dira, eta produktuak trukatzeari baino ez da onartzen.

Baratze bakoitza nori eman eskatzaileen arteko zozketa baten bidez erabakitzen da eta pertsona horiek herrian erroldatuta egon behar dira. Espazioek 60-75 metro koadro dituzte, eta nekazaritza ekologikorako dira.

<www.gernika-lumo.eus> Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

6.	Erabiltzaileek ezin dute dirurik irabazi.
7.	Interesatuta egonez gero, oraindik badago baratzaren bat lortzeko aukera hurrengo uztarako.
8.	Kirol-instalazio bat egokitu dute partzelak egiteko.
9.	Erabiltzaile guztiontzako lekua dago tresnak uzteko.
10.	Udalak erabilera egokirako jarritako arauak bete behar dituzte interesatuek.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «EL CASCO GRAPAGAILUAK»

1.	B	2.	A	3.	C	4.	A	5.	B
----	---	----	---	----	---	----	---	----	---

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «UDAL BARATZEAK»

6.	C	7.	A	8.	B	9.	B	10.	A
----	---	----	---	----	---	----	---	-----	---